



EGUNKARIA

MORENO, YECLANON. Futbolaz gozatzeko asmoz joan zen Yeclara Javier Moreno. Garai hartako argazkian, Yeclanoko taldekideekin batera ageri da; beheko lerroan, ezkerretik hasita, hirugarrena da Moreno.

Lau urtetan, zerua

JAVI MORENO, MILANERA. Yeclan gogoan dute oraindik Javier Morenok Yeclanon Bigarren B Mailan jokatu zuen garaia

Jon Rejado | GASTEIZ

Aspalditik ikusten ez zen bilakaera ikusgarria izan du Javier Morenok. Lau urtetan bigarren B Mailan Yeclano taldean jokatzetik Europako talde handi batera heldu da. Are gehiago, orain dela bost urte futbola uzteko zorian zegoen gazteak 1.200 milioi jasoko ditu datozen lau denboraldietan. Horrelako gauzak Hollywoodeko filmetara mugatzen direla pentsatzen zuena aho bete hortz gelditu da, zalantzarik gabe.

Gauza bera gertatu zaie Yeclako biztanle guztiei, herri horretako Bigarren B Mailako taldean hasi baitzen Javier Moreno gorako bidean, orain dela lau urte. Juan Hernandezek, Yecla-

noko gerenteak oraindik gogoratzen du datorren denboraldian Milanen jardungo duen aurrelaria lehenengoz ikusi zutenean: «Urte bat ezer egin gabe eman ostean, futboleko egiteko

JUAN HERNANDEZ

(Yeclanoko gerentea)

«Yeclano zein Yecla oso pozik daude Morenok lortu duenarekin; tamalez, ez genuen inongo klausularik jarri»

«Yeclanora heldu zenean, Morenok zazpi kilo argaltzea lortu genuen; hala ere, Alavesera nahiko potolo joan zen»

kilo gehiegi zituen, eta gogor ekin genion argaltze lanari».

Barre-algaraka gogoratzen ditu egindako entrenamendu saio guztiak, baita aurrelariaren sasoirik onena lortzeko asmoz plastikoz estaltzen zutenekoak ere. «Zazpi kilo argaldu zen jokatzeko hasi aurretik; hala ere, Alavesera nahiko potolo joan zen», azaldu du. Nolanahi ere, Morenoren gorputza izatez handia dela gaineratzen du. Adibiderik argiena Alaveseko sendagileek azterketa fisikoan egin zioten galdera bat da: «Zuk inoiz pesarik egin al duzu?», galdetu zioten aurrelariari, izter izugarri zabalak zituela ikusita.

Baina, gorputzaz gain, Morenok Alavesen ikasitako guztia ikusgarria dela deritzo Juan Hernandezek. Yeclako taldean kalitate zertzelada batzuk zituela onartu arren, Gasteiza etorri zenetik gainontzeko taldekideak bere inguruan daudela ikusi du, eta horrek asko lagundu diola azpimarratzen du Yeclanoko gerenteak.

Berriak oihartzun izugarria izan du Yeclako biztanleengan

Aste honen hasieran jakinarazitako albisteak oihartzun izugarria izan du Yeclan. Herriko txoko guztietan Javier Morenoren fitxaketari buruz hitz egiten da, eta, Sillako aurrelariaren taldekide askorik jarraitzen ez duen arren, ikusmin handia sortu du taldean bertan. «Jokalari gazteentzat izugarritzko bultzada da, lan gogorra eginez Europako gailurrera heltzeko modurik badagoela pentsa baitezakete», esan du Yeclanoko gerente Juan Hernandezek.

Hala ere, gauza batez damu da Yeclano: «Nolabaiteko klausula jartzea ahaztu zitzaigun», dio Juan Hernandezek algaraka. «Txorakeria asko esan daitezkeen arren, hiria zein kluba asko poztzen da Javier Morenori gertatutakoarekin».

ALAVES

Cosmin Contrak bere etorkizuna zehaztuta izan nahi du bi asteren buruan

Jon Rejado | GASTEIZ

Javi Morenoren fixaketak Alavesen antzeko egotzeran direnen inguruko kezakak sortu ditu. Cosmin Contrak, adibidez, atzoko entrenamendu saioaren ostean, bere etorkizunari buruz mintzatu zen. Datorren urtean Mendizorroztatik urrun jokatu behar duela argi dagoen arren, Errumaniako jokalariek ez du argi ikusten non izango den.

Interesa adierazi duten talde gehienak Italian eta Erresuma Batuetan daudela nabarmendu zuen Contrak. Hala ere, azken asteetan eskaintzarik egin ez dutela aipatu zuen: «Interesatzen zaizkidan taldeek ez dute interes handirik erakutsi ni fitxatzeko». Indar gehien izan dezakeen taldea, berak baieztatu ez arren, Milan go Inter izan daiteke; hortaz, datorren urtean Javier Morenorekin egongo litzateke Italiako hiri horretan.

Bere etorkizuna hedabide guztien ahotan dagoen arren, Cosmin Contrak argitu zuen egun duen helburu garrantzitsua Alavesi duen guztia ematea dela. Hala ere, datozen bi partiduetan ezingo ditu jokatu, Txapelketa Batzordeak bi partiduko zigorra jarri baitio Bartzelonaren kontra ikusitako bi txartel horientatik. Hortaz, ez du Madrilan jokatu.

REALA. Galestarrak, lehen aldiz, hamaikako berbera bi bider erabiliko du denboraldi honetan, Luiz Alberto hasieratik zela iratuz

Jon Balenziaga | DONOSTIA

Realeko entrenatzaileak ez du ezer aldatu nahi. Malagaren aurka garaipen garbia eskuratu ondoren, atzo hasi zen talde txuri-urdina Zaragozaren aurkako neurketa erabakigarria prestatzen eta, itxura batean, atzoko entrenamenduan ikusitakoaren arabera, John Toshackek seguruenik aurreko igandeko hamaikako berbera zelairatuko du La Romareda futbol zelaietan.

Aurrez, zalantza bakarra atzealdean zegoen, egotekotan. Julio Cesar, behin partidu bateko zigorra bete ondoren, hamaikakora itzultzeko moduan da, bai-

Toshackek pasa den igandeko hamaikako berbera zelairatuko du igandean Zaragozaren aurka

na Toshackek, antza, nahiago du Luiz Albertok hasieratik jokatzeko jarraitzea. Okerrik ez, Zaragozaren aurka igande honetan ondorengo jokalariek hauek jokatu dute hasieratik: Alberto; Lopez Rekarte, Loren, Luiz Alberto, Aranzabal; Xabi Alonso, Idiakez; Tayfun, Khokhlov, De Pedro; De Paula. Talde txuri-urdina azken boladan, ondo jokatzeari gain, emaitza onak ere eskuratzen ari da. Ondorioz, atzo ikusitako hamaikako berbera bitan zelairatzen duen lehen aldia litzateke. Dena den, igandea baino lehen hiru lan saio gehiago dituzte eta ikusi beharko da horietan Toshackek bere asmoa berresten duen edo aldaketaren bat egiten duen.

kakoa beteko balitz, Toshackek hamaikako berbera bitan zelairatzen duen lehen aldia litzateke. Dena den, igandea baino lehen hiru lan saio gehiago dituzte eta ikusi beharko da horietan Toshackek bere asmoa berresten duen edo aldaketaren bat egiten duen.

De Paulak denboraldi amaieran hitz egingo du bere etorkizunaz

Atzoko entrenamenduan, bestalde, Oscar de Paula ere prota-

gonista izan zen, neurri batean. Athleticen presidente kargurako hautagaietarikoa batek, Javier Uriak, presidente kargua eskuratzen badu Oscar de Paula fitxatzeko asmoa azaldu du. De Paulak 2003. urte arteko kontratua du talde txuri-urdinarekin eta 5.000 milioiko etete klausula. Zenbait zurrumurru diotenaren arabera, jokalariren bitartekaria jada hasi da harremanetan Realarekin. 1.000 milioi inguru ordaintzeko prest omen da Athletic. Dena den, Realak, taldea orain dagoen bezala egonda, ez du ez De Paula ez eta beste jokalaririk batzuei buruz iritsiko diren eskaintzez hitz egin nahi.

De Paula, berriz, hedabideen aurrean mintzatu zen atzo Zubietan, entrenamenduaren ondoren, eta berak ere garbi utzi zuen orain ez dela bere etorkizunari buruz hitz egiteko unea. Ezezko borobilik, ordea, ez zuen eman jokalaririk txuri-urdinak bere adierazpenetan. «Ez da hau hitz egiteko unea. Askok dugu jokoan eta une honetan nire asmo bakarrak jokatzeko eta taldeari mailari eusten laguntzea dira, besterik ez. Nire lanean buru-belarri murgilduta egon nahi dut. Denboraldia amaitzen denean ikusiko dugu zer gertatzen den», esan zuen Oscar de Paulak atzo Zubietan.